

MIKROPOLITIKA

Askotan irakurri eta entzun dugu makro eta mikro mailen arteko erlazioari buruzko iritzirik ekonomia kontuetan. Makroekonomian erabiltzen diren datuek eta hartzen diren erabakiek pertsonen eguneroko bizimoduan sekulako eragina dutela, eta agente erabakitzaileek eragin hau existituko ez balitz bezala jokatzeko dutela da egin ohi den kritika. Politikan ez dugu halakorik apenas entzun edo irakurri.

Azken berrogei urteotako euskal politikan zorrotza izan da, zorrotzegia agian, ideia eta pertsonen arteko bereizketa. Makropolitikako kontzeptuak eta proiektu kolektiboak (marko juridiko-politikoak, hizkuntza, alderdia, erakundeak,...) lehentasuna izan dute beti banakoen proiektuen gainetik, euskaldunok ideien erreinu autonomo platonikoan edota «gaurko sufrimendu indibiduala=terrenala=biharko askapen kolektibo zerutiarrak» *leit motif* kristauan fede neurrigabea dugulako edo. Baina errealitatea gogorra da gero. Pertsona gazte batek erakunde armatu batean sartzeko hautua egiten du. Noizbait beste pertsona bat hiltzeko unea datorkio. Horrek izan ditzakeen ondorio makropolitikoez gain, ondorio izugarriak izan behar ditu, gogorrenak biktimarentzat, jakina, baina baita egilearentzat ere. Nola daramatza gazteak eragin dituen hildakoen oroitzapenen zama? Sasian bizi behar du hori. Hiltzen ez badute, atxilotu egingo dute, edo *izoztu* egingo da. Urte luzeetarako izoztu, urruneko irlaren batean. Nolanahi ere, nola hala eratu beharko du bizitza afektiboa guraso, lagun, seme-alabekin...eta hauek ere nola hala eraman beharko dute bere senidearen zama. Kartzela edo iheseko urteak pasata (pasatzen baditu), *kaleko* errealitate berriari egin beharko dio aurre bere bakardadean. Suizidioa izan liteke batentzat irtenbide ausart eta duin bakarra. Zeresan eskasa dute kontzeptu makropolitikoei nork bere buruaz egiten duen koiuntura-analisan.

Egia da. Ezin da herri proiektu kolektiborik aurrera atera, bakoitzak bere interes propioei bakarrik begiratuta. Baina, kontuz, makropolitikako erabakiguneetan daudenek argi izan beharko lukete pertsonetan, bizitzetan ordaintzen direla euren erabakien (zuzenen nahiz okerren) kostuak. «Eman dezagun denek pixka bat, gutxi batzuek dena eman behar izan ez dezaten» dio maximo ezagun batek. Ondo. Baina beste hau ere kontuan izan beharko genuke: «Ez inori eskatu eman dezakeena baino gehiago».